

Azken hiru hamarkadetako gune berdeen

suntsiketa ekologikoa ren birpasa historikoa eta bisual laburra

Azkenengo

hamarkadetan Barakaldon parkeen kopurua handitu dela eta aldi berean zonalde berdeen eremua txikitu egin dela esateak kontraesan bat dirudi. Baina, hau erraz egiazta daitekeen errealitatea da, orain dela 30 urte geneukana eta gaur egun daukagunaren arteko alderaketa baino ez dugu egin behar.

XX. mendearen amaieran industriaren desegite prozesuaren ondorioz hainbat eremu industrial hutsik geratu zen, hauek bizi kalitatea hobetzeko edota gure herria ekologikoki berroneratzeko erabil zitezkeen. Aldi berean, 150 bat urte iraun zuen prozesu industrialaren aurrean biziraun zuten herriko zonalde berdeek hirigintza masifikazioaren ondorioek gutxitzen lagundu zuten.

Industria-birmoldaketak ingurumen berroneratzerako aukera ugari eskaintzen zituen arren,

kontrako prozesua hasi zen; lurraldearen artifizializazioa, txalet eta etxebizitzaren neurri gabeko eraikuntza, merkatal zentro handiak, beharrezkoak ez ziren autobideak... Udal Gobernuak baimendu eta bermatutako neurri gabeko espekulazioa, bestelako erakunde publikoen ekintzekin handituta, adibidez Foru Aldundiak Super-Sur-rarekin egindakoa.

Erakunde publiko hauek gidatzen dituzten alderdi politikoek gezur hau sinarazi nahi digute egiten dituzten propaganda-kanpainen bidez; zonalde berde gehiago dauzkagula diote eta ingurumena gehiago zaintzen dela. Lan honen helburua benetan gertatu dena islatzea da; guregana zailtasun ugarirekin heldu den natur-ondarea suntsitu eta suntsitzen ari dira eta datozen belaunaldiek ezin izango dute hau gozatu.




PARKE BOTANIKOA (Ansio Ibarreta-Zuloko)

Udal Gobernuak San Bizenteko Parke Botanikoa zonalde berdeek Barakaldon hartu duten garrantziaren adibide bezala saltzen digu, baina benetan hau Zulokoko zonalde berdea eta Ansioko Ibarra estali duen zementu zatia baino ez da, hori bai, landare exotikoekin apainduta. Urte askotan zehar auzo elkarteek eta talde ekologistek hiri-parke handi bat moduan zonalde honen babesa eskatzen zuten.

Ezkerraldeko azkenengo hezegunea mantentzeko eskaerak ez ziren kontuan hartu.


MegaPark-aren eta San Bizenteko dorretxeen eraikuntza, tamaina handiko operazio espekulatzailea izan zen eta Parke Botanikoa kontsolazio-saria baino ez zen izan: eraikuntza enpresen diru goseak, multinazionalak eta hau baimentzen duten alderdi politikoez utzitako apurra.




Argazki honetan A-8 eta Max Center eraikitzen ari zirenean ikusi dezakegu. Castaños ibaiako jatorrizko ubidea ikusi daiteke eta baita Ezkerraldeko azken hezegunea ere.



1999an Castaños ibaia kanalizatua zegoen, A-8 eta Max Center eraikita eta geratzen zen berde gunean hasia ziren inausketak MegaPark eta etxe dorreak eraikitzeko.



1999ko urte bereko beste perspektiba bat



Eta hauxe utzi dute: Parke Botanikoa.


ARGALARIO, MESPERUZA, GOROSTIZA, SASIBURU

SUPER-SUR

Oraingo honetan, Foru Gobernuak, EAJ-ren eskutik, autobide honek hainbat udalerrietan egindako kalteen erantzulea da. Barakaldon hain zuzen ere, Argalario, Mesperuza, Gorostizako Urtegia eta Sasiburu dira kalte gehien jaso dutenak.

Super-Sur ordainpeko autobidea izango da eta gainera, Foru Aldundiko ikerketei so eginez, ez ditu A-8ko pilaketa arazoak konponduko eta

defizitarioa izango da. Nork ordainduko du defizit hori? Bere eraikuntza finantzatzen duten berberak: guk, gure zergekin. Nork lortzen du etekina bere eraikuntzatik? Eraikuntza enpresa handiek eta bidesaria kudeatzen duenak, ohikoa den bezala alderdi politiko zehatz batzuekin oso harreman ona daukatenak.



Mesperuza

Gorostiza






Super-Sur autobidea Gorostizako urtegitik igarotzen







Mesperuza



ARGALARIOko LINDANE GALAXKA

Barakaldo eta Bizkaiko beste 10 udalerrietan zehar sakabanatuak izan ziren industria garaiko hondakin toxikoak gordetzen ditu Lindano gelaxkak. Hau 1999-2002 urteen artean eraiki zen lehen aipatutako hondakinak gordetzeko.

Jabetza pribatu ugari gure lurzorua kutsatuz aberastu ziren eta orain hainbat hamarkada beranduago lurzorua diru publikoarekin garbitzen dute, inolako erantzukizun penalik gabe. Eta hau gutxi balitz, Argalarioaren eremu zabal bat erabiliz eta hango biztanleen bizi kalitatea kaltetuz.



GOROSTIZA

Udaletxeak 2002an, Lurzoru Urbanizagarrien Plan Partziala eta PERI-a (Barne-eraberritzeko Plan Berezia) onarpenak nekazal auzo honetan neurririk gabeko eraikuntza eta espekulazioak ahalbidetu zuen.


Biztanle kopuru gutxi zeukan auzoa izatetik, gaur egun 200 etxebizitza (ia-ia erdia txaletak dira) eraikitzeko lanak pairatzen ari den auzoa izatera pasa da.



HILERRIKO PARKEA

Lehenago aipatutako adibideen dimentsioa baino txikiagoa den arren, jabetza pribatuko ortu eta zuhaitzak zituen eremu txiki hau zementuz estali dute, zer eraikitzeko??Parke publiko bat!!!

Sinesgaitza dirudi baina Udal Gobernuaren politika espekulatzailerik eta zementatzailearekin bat dator.



LA FAMILIAR - BEURKO ZAHARRA

Oraingo honetan, Bidegorriaren parean, Beurko Zaharra eta La Familiar auzoen artean dagoen eremu txiki honen txanda da. Udal Batzak, PSOE eta IUren botoekin, zonalde publiko bat eraikitzeko aitzakiarekin desjabetua izan zen eremu

hau berriro pribatizatzea onartu du. Helburua parking pribatua eraikitzea delarik, eraikuntza enpresa baten handinahia puzteko eta bizilagun gutxi batzuen mesederako.




BASATXU - La Dinamita

Ortuak, larreak eta etxebizitza txikiak baino ez zituen zonalde honetan 400 etxebizitza baino gehiago eraikitzen ari dira.

Basatxu - La Dinamita

Gorostiza



IKUSPEGI OROKORRA ...

Parke botanikoa-MEGAPARK (Ansio Ibarra-Zuloko)

Hilerriko Parkea

La Familiar - Beurko Zaharra



Mesperuza

Gorostizako urtegia

Gorostiza

Basatxu-La Dinamita

Ez da beharrezkoa gehiago luzatzea; irudiak adierazgarriak dira eta. Zonalde berdeen suntsiketa historiko hau ez dirudi epe laburrera amaituko denik. Eraso guzti hauen atzean dauden enpresek haien lanarekin aurrera jarraitzen dute, haien diru gosea asetu nahian. Gainera, haien sarraskiak bermatuko dituzten alderdi politikoak ez zaizkie inoiz faltako. Hauentzat, zutik eta tinko mantentzeko, Barakaldoko ingurumena eta natura jan behar duten tamaina handiko tarta baino ez da. Premiazkoa da Barakaldoko azken gune naturalak babestea.

BABESA BARAKALDOKO AZKEN GUNE NATURALETARAKO !!

Barakaldo, 2011ko maiatza